2021SPLE0007
7.BILERA: OHIKOA 2021/09/30

# UDAL OSOKO BILKURARAREN AKTA

## ACTA del PLENO MUNICIPAL

| | |
|---|---|
| BILERA ZK.: 2021/07 | SESION Nº: 2021/07 |
| EGUNA: 2021/09/30 | DÍA: 30/09/2021 |
| HASIERA ORDUA: 19:05 | HORA DE INCIO: 19:05 |
| AMAIERA ORDUA: 19:45 | HORA DE FINALIZACIÓN: 19:45 |
| TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa | LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento |
| **BERTARATUAK:** | **ASISTENTES:** |
| Gilen Garcia Boyra, **alkatea** | Gilen Garcia Boyra, **alcalde** |
| **EH Bildu udal taldea** | **Grupo municipal EH Bildu** |
| Itziar Irizar Beristain | Itziar Irizar Beristain |
| Aritz Larrañaga Unanue | Aritz Larrañaga Unanue |
| Antxon Etxeberria Larrea | Antxon Etxeberria Larrea |
| Nerea Arrizabalaga Badiola | Nerea Arrizabalaga Badiola |
| Antxoka Elorza Altuna | Antxoka Elorza Altuna |
| **Debarren Ahotsa udal taldea** | **Grupo municipal Debarren Ahotsa** |
| Pedro Bengoetxea Loiola | Pedro Bengoetxea Loiola |
| Isidor Lamariano Arostegi | Isidor Lamariano Arostegi |
| Ane Egidazu Elosua | Ane Egidazu Elosua |
| Enrique Salgado Alcorta | Enrique Salgado Alcorta |
| **EAJ-PNV udal taldea** | **Grupo municipal EAJ-PNV** |
| Iñigo Cambronero Alkorta | Iñigo Cambronero Alkorta |
| Eneritz Gómez Lázaro | Eneritz Gómez Lázaro |
| Miren Esnal Laskibar | Miren Esnal Laskibar |
| **Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra | **Secretario:** Jose Luis Salaberri Iñarra |

DEBAKO UDALA

2021SPLE0007
7.BILERA: OHIKOA 2021/09/30

**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.**

**Gilen Garcia**: Arratsalde on eta ongi etorri denoi. Hasi baino lehenago bi kontu:

Lehendabizikokoa, Gaurko Tokiko Gobernu Batzordean erabaki dugu lehen aztergaia bertan behera uztea, hau da Covid 19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa orain arte onartu duguna, ateak itxita egitea eta abar, bertan behera uztea eta hemendik aurrera baikotzat bere eserlekuan jarrita egitea bilerak, dagokien neurriekin. Hortaz, aztergai hori ez dugu landuko.

Eta bigarrenik, Eusko Alderdi Jeltzaleak mozio proposamen bat egin du urgentziaz, eta horixe aztergai zerrendan sartzea izango litzateke proposamena.

Mozioa gai zerrendan sartzearen aldeko botoak?

Udalbatzak, aho batez, mozioa gai zerrendan sartzea onartzen du.

**Gilen Garcia**: Oso ondo, hortaz, hasiko gara bigarren puntutik.

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.

**Gilen Garcia**: Buenas tardes y bienvenidos. Antes de empezar dos cuestiones:

En primer lugar, en Junta de Gobierno Local de hoy hemos acordado retirar el primer punto del del orden del día, esto es, celebrar las sesiones a puerta cerrada como medida preventiva de contagio o propagación del Covid 19, y que a partir de ahora las sesiones se celebren sentándonos en nuestros, con las medidas preventivas correspondientes Por lo tanto, no vamos a tratar este tema.

Y, en segundo lugar, el Partido Nacionalista Vasco ha presentado una propuesta de moción con carácter de urgencia, y se propone incluirla en el orden del día.

¿Votos a favor de incluir la moción en el orden del día?

El Pleno, por unanimidad, aprueba incluir la moción en el orden del día.

**Gilen Garcia**: Bien, entonces empezaremos por el segundo punto.

**1. COVID 19 KUTSATZEKO EDO HEDATZEKO PREBENTZIO NEURRI GISA HONAKOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO: OSOKO BILKURA HAU ATEAK ITXITA EGITEA.**

Gai-zerrendatik kendua.

1. APROBAR, SI PROCEDE, CELEBRAR ESTA SESIÓN DE PLENO A PUERTA CERRADA, COMO MEDIDA DE PREVENCIÓN DEL CONTAGIO O PROPAGACIÓN DEL COVID-19.

Retirado del orden del día

**2. AURREKO BILKUREI (2021/06/24) DAGOZKIEN AKTA ZIRRIBORROAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalbatzak, aho batez, 2021eko ekainaren

2. APROBAR, SI PROCEDE, EL BORRADOR DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES (24/06/2021).

El Pleno, por unanimidad, aprueba el acta

24ko bilkurari dagokion akta onartzen du.

correspondiente a la sesión de 24 de junio de 2021.

**3. ALKATEAREN DEKRETUEN KONTROLA.**

**Gilen Garcia:** Ba al dago galderarik?

**Iñigo Cambronero:** Bai, 514 Dekretua, “Eguneko zentroko garbitasun kontratua Gureak enpresarekin suntsiaraztea”

**Aritz Larrañaga:** Gurearekin zerbitzu kontratu bat izan dugu eguneko zentroaren garbitasunerako. Covid-rekin kontratua egokitu behar izan zen, eguneko zentroak beste garbiketa sakonago eta zehatzago bat eskatzen zuelako.

Geroztik Gureakoekin hitz egiten egon gara lehengo egoerara nola bueltatu aztertzeko, jakinda kontratu horretan lanean zegoen pertsonak behar batzuk zituela eta ezin zuela bakarrik lan egin Aukera desberdinak landu ziren Gureakoekin (pertsona hori lekuz aldatzea, eta abar). Beraiek ere ikusi zuten pertsona horrek ezin zuela bakarrik lan egin eta beharra zuela taldean aritzeko, eta pertsona hori lekuz aldatu zuten lan talde batean aritzeko.

Egoera horren aurrean adostu genuen bertan behera uztea kontratua, eta Gureakek egiten zuen garbitasun lanak beraiek ez egitea, eta Eclatek egitea eraikinaren garbitasun lan guztiak.

Adostasun batera heldu ginen Gureakekin zegoen egoera horri irten bat emateko. Espero dugu langile horrentzat ere bilatu

3. CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna pregunta?

Iñigo Cambronero: Si, el Decreto 514, "Resolución del contrato de limpieza del centro de día con Gureak"

Aritz Larrañaga: Hemos tenido un contrato de servicios con Gureak para la limpieza del centro del día. Con el Covid hubo que adaptar el contrato ya que el centro de día exigía otra limpieza más profunda y precisa.

Desde entonces hemos estado hablando con Gurea para analizar cómo volver a la situación anterior, sabiendo que la persona que estaba trabajando en ese contrato tenía unas limitaciones y no podía trabajar sola, y que tendrían que poner alguna otra persona para trabajar con ella. Se trabajaron diferentes opciones con Gureak (traslado de esta persona, etc.). Ellos también vieron que esa persona no podía trabajar sola y tenía necesidad de trabajar en equipo, y trasladaron a esa persona para trabajar en un grupo de trabajo.

Ante esa situación, se acordó rescindir el contrato con Gureak y que fuera Eclat quien se encargase de todas las tareas de limpieza del edificio.

Se llegó a un acuerdo con Gureak para dar una solución esta situación. Esperamos que el nuevo lugar que se le ha buscado a este

dioten toki berria berantzat egokiagoa izatea.

trabajador sea más adecuado para el.

Guk nahi genuen Gureakekin lanean jarraitu, baina ez zen posible izan. Hala ere gure asmoa da, etorkizunean, irteten badira esleipen batzuk, ahal bada, Gureakekin egitea.

Queríamos seguir trabajando con Gureak, pero no fue posible. Sin embargo, nuestra intención es que, en el futuro, si salen algunas adjudicaciones, si es posible, se hagan con Gureak.

Eurekin harremanetan jarraitzen dugu, eta pandemia garaian sortutako kontu txiki batzuk ere konpondu dira.

Seguimos en contacto con ellos y también se han solucionado pequeñas cuestiones surgidas durante la pandemia.

**4. VIALINE ENPRESAK KUDEATUTAKO 2021EKO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO ALKATEAREN DEKRETUEN KONTROLA.**

4. CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS POR LA EMPRESA VIALINE EN 2021.

**Gilen Garcia:** Ikusten duzuen bezala, ez dira asko, orain arte genuen idazkariak kargu uzterakoan, izendatu behar genuen instruktore berria, eta hori da horren gutxi egoteko arrazoia.

Gilen Garcia: Como podéis observar no hay muchos decretos. Al cesar ene lcargo el anterior secretario había que nombrar un nuevo instructor, y esa es la razón de que haya tan pocos.

**5. 2022. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

5. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA EL AÑO 2022.

**Itziar Irizar:** Urtero bezala, iraila-urrian datorren urteko ordenantzak onartzea tokatzen da.

Itziar Irizar: Como todos los años, en septiembre-octubre toca aprobar las ordenanzas para el año que viene.

Irailean zehar egin ditugun Ogasun Batzordeko bileratan, ikusi diren gauzak izan dira, batetik iaz egin zela aldaketa nahiko orokor bat, eredua hartuta inguruko herrietan dauden zergak, tasak eta ingresu publikoak; eta aurten adostu duguna izan da irizpide bat- edo markatzea, zeren hiru, lau edo bost urtetan ez bada igoerarik aplikatzen, gero igoera edo aldaketa egin behar denean, askotan, diferentzia handia egoten delako.

En las reuniones de la Comisión de Hacienda celebradas a lo largo del mes de septiembre, se ha constatado que, por un lado, el año pasado se produjo un cambio bastante generalizado, tomando como modelo los impuestos, tasas e ingresos públicos existentes en los municipios del entorno, y este año hemos acordado marcar un criterio, ya que si en tres, cuatro o cinco años no se aplica ningún incremento, cuando hay que realizar una subida o modificación, muchas

veces hay una gran diferencia.

Orduan, Enriquek ekarri zituen KPIak azken urteetan izandako bilakaeraren zerrendak, eta 2017tik orain arteko KPIren aldaketa horren batezbestekoa aintzat hartuta, adostu genuen %1eko igoera aplikatzea. Eta horrela, ordenantzak urtero lantzen direnez, pentsatzen dugu irizpidea izan daitekeela, urtero, KPIren igoeraren araberako igoera egitea, lehen esan dudan bezala, salto handirik egon ez dadin.

Así, Enrique trajo los listados de la evolución del IPC en los últimos años, y teniendo en cuenta la media de la variación del IPC desde 2017 hasta ahora, acordamos aplicar un incremento del 1%. Y así, como las ordenanzas se trabajan todos los años, pensamos que el criterio puede ser que cada año se haga un incremento en función de la subida del IPC, para que, como he dicho antes, no haya grandes saltos.

Orduan, %1 hori aplikatuko litzateke, batetik, ondasun higiezinen gaineko zergan, eta bestetik, ibilgailuen gaineko zergan.

Entonces, ese 1% se aplicaría en el impuesto sobre bienes inmuebles y en el impuesto sobre vehículos.

Aparkalekuko tasak, TAOko tasak, ere aztertu genuen gainetik, eta kasu horretan doikuntza txiki batzuk orain egin ditugu, baina gero TAO ordenantza landuko dugu. Juxtu gaur bukatzen da TAO denboraldia eta, datorren astetik aurrera lanketa horrekin hasiko gara eta ikusiko dugu zer aldaketa egin behar diren, eta ordenantza bera orduan ere, aldatu behar ote den.

También analizamos por encima las tasas de aparcamiento, las tasas de OTA, y en ese caso hemos hecho algunos pequeños ajustes ahora, pero luego vamos a trabajar en la ordenanza de OTA. Justo hoy termina la temporada de OTA y, a partir de la semana que viene, comenzaremos con esa labor y veremos qué cambios hay que hacer y si también hay que modificar la propia ordenanza.

Gainontzean, Udalari dagokionez egon dira beste eguneraketa batzuk, urtero kurtsoaren zehar antolatzen diren jardueratan, Gozatuz jardueratan.

Por lo demás, en lo que respecta al Ayuntamiento, ha habido otras actualizaciones en las actividades que se organizan anualmente a lo largo del curso, las actividades Gozatuz.

Bestalde, mankomunitateak ezartzen ditu bai zabor bilketarako eta kale-garbiketarako aurrekontuak, eta datorren urterako proposatu du batezbesteko %1,57ko igoera. Orduan, zabor bilketarako tasa horietan ere %1,57ko igoera aurreikusten da. Hori

Por otro lado, la mancomunidad establece los presupuestos para la recogida de basuras y limpieza viaria, y propone un incremento medio del 1,57% para el próximo año. Entonces, en estas tasas de recogida de basuras también se prevé un incremento del

normalean izaten da mankomunitateak egiten duen igoeraren arabera.

Gizarte Zerbitzuetako prezioei, berriz, hor daude, taberna, podologia zerbitzua, ile-apaindegi zerbitzua eta etxez etxeko zerbitzua, lau horiek. Hor, egin daiteke %1 hau aplikatu berdin, edo utzi Gizarte Zerbitzuetako batzordean gaia landu dezaten. Hori da gaur erabaki behar duguna.

**Aritz Larrañaga:** Egia da Ogasun batzordetik ez dela ezer pasatu. Gizarte Zerbitzuko teknikariarekin hitz egin ondoren, %1a igotzea bada irizpidea, Gizarte Zerbitzuetako prezioetan ere %1a hori aplikatuko litzateke, baina, aukera hori egonez gero, nik batzordean aztertuko nuke, irizpena egin eta hurrengo Ogasuneko batzordera eraman eta onartu, nahiz eta gaur onartu ordenantzen aldaketa.

**Itziar Irizar:** Orduan proposamena litzateke bidali zaizuen dokumentu hori gehi Gizarte Zerbitzuetako prezioen %1eko igoera onartzea.

**Gilen Garcia:** Adostasuna daukagu, hortaz?

Udalbatzak, aho batez, 2022. urterako ordenantza fiskalak onartzen ditu.

**6. ETXEBIZITZAREN ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**Aritz Larrañaga:** Asmoa da gaur alokairurako dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea, eta hemendik aurrera, jendaurrean jarri eta gero deialdia egin.

1,57%. Esto suele ser en función de la subida que haga la mancomunidad.

En cuanto a los precios de los Servicios Sociales, se encuentran el bar, el servicio de podología, el servicio de peluquería y el servicio a domicilio. Ahí se puede aplicar este %1 igual o dejar que en la comisión de Servicios Sociales se trabaje el tema. Eso es lo que tenemos que decidir hoy.

**Aritz Larrañaga:** Es cierto que no ha pasado nada por la comisión de Hacienda. Después de hablar con la técnica de Servicios Sociales, se podría aplicar el criterio es subir el 1%, en los precios de los Servicios Sociales también, pero, si hubiera esa posibilidad, yo lo estudiaría en comisión, haríamos el dictamen y lo llevaríamos a la siguiente comisión de Hacienda para que lo aprobaran, aunque hoy se apruebe la modificación de las ordenanzas fiscales.

**Itziar Irizar:** Entonces la propuesta sería aprobar el documento que se os ha remitido, más un incremento del 1% de los precios de los Servicios Sociales.

**Gilen Garcia:** ¿Estamos de acuerdo?

El Pleno, por unanimidad, aprueba las ordenanzas fiscales para el año 2022.

6. APROBACIÓN, SI DE LAS BASES DE LAS SUBVENCIONES AL ALQUILER DE VIVIENDA.

**Aritz Larrañaga:** La intención es que hoy se aprueben las bases para la concesión de las ayudas al alquiler y, a partir de ahora, tras la exposición pública, se haga la convocatoria.

Azken astean, hainbat gauza zehatzago jartzeko lanean aritu gara, bestela, etorkizunean, deialdia egin eta eskaerak jasotzerakoan aurki genitzake egoera batzuk ez zeundela jasota oinarrietan.

En la última semana se ha trabajado para concretar algunas cosas, de lo contrario, en el futuro, a la hora de realizar la convocatoria y recoger las solicitudes, podríamos encontrar algunas situaciones que no estaban contempladas en las bases.

Azkeneko batzordean eztabaidatu genuen oinarriak, eta adostasuna zegoen oinarrietan, baina, ez zegoen adostasunik kopuruetan. Aurreko batzorde batean kopuru batzuk esan ziren, Debarren Ahotsak proposamen bat egin zuen eta batzordearen irizpenean jaso zen bezala, kopuru batzuk adostu ziren EH Bildu eta EAJ-PNVren botoekin, eta Debarren Ahotsak bere proposamenari eutsi zion.

En la última comisión debatimos las bases y había consenso en las bases, pero no había acuerdo en las cantidades. En una anterior comisión se dijeron unas cantidades, Debarren Ahosa hizo una propuesta y, tal y como se recogió en el dictamen de la comisión se acordaron unas cantidades con los votos de EH Bildu y EAJ-PNV, mientras Debarren Ahotsa mantuvo su propuesta.

Kualitatiboki ez da aldaketa handia, baina lanketa finagoa egiterakoan, Gizarte Zerbitzuko teknikariarekin ikusi genuen jarritako kopuruak ekitatiboak izateko egokitu behar zirela baliabideen portzentaiak.

Cualitativamente no se trata de un cambio importante, pero a la hora de realizar una elaboración más fina, vimos con la técnica de Servicios Sociales que debían ajustarse las cifras establecidas a los porcentajes de recursos para que fueran más equitativas.

Atzo partekatu genuen hau guztia batzordean, eta gaur honen buruz hitz egin daiteke, eta adostasuna badago, onartu daiteke. Gure proposamena da bakoitzaren iritzia jasotzea eta gero bozketa egitea.

Ayer compartimos todo esto en la comisión, y hoy se puede hablar de ello y si hay consenso se puede aprobar. Nuestra propuesta es recoger la opinión de cada uno y cada una,y luego votar.

**Enrique Salgado:** Arratsalde on. Dakizuenez, Marilu da gizarte-gaietako ordezkaria, baina nola ezin den hemen egon, bere iruzkinak helarazten dizkizuet.

**Enrique Salgado:** Arratsalde on. Como sabéis la representante en asuntos sociales es Marilu, pero cómo no puede estar aquí os traslado sus comentarios.

Puntu honetan, adierazi nahi dugu guretzat etxebizitzaren gaia gure lehentasunetako bat dela, gure programan adierazten genuen bezala. Horren ondorioz, 2021eko aurrekontuetan etxebizitza alokatzeko

En este punto, queremos trasladar que para nosotros el tema de la vivienda es una de nuestras prioridades tal y como indicábamos en nuestro programa. Consecuencia de ello hubo una propuesta de incluir una partida

laguntzetarako partida bat sartzeko proposamena egin zen. Hori dela eta, parte-hartze aktiboa izan dugu etxebizitzak alokatzeko laguntzen oinarriak prestatzen.

para ayudas para alquiler de vivienda en los presupuestos de este año 2021. Esto ha hecho que hayamos tomado parte activa en la elaboración de las bases para ayudas de alquiler de vivienda.

Egia da nahiko genukeela diru-sarreren gehiengoa pixka bat altuagoa izatea, eta behar handiena duten alderdietara iritsi izana, kontuan hartuta beste herri batzuetan, adibidez, altuagoa dutela eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko 25 eta 34 urte bitarteko batez besteko soldata, 2019an, 23.000 eurokoa izan zela. Badakigu, halaber, aurrekontuaren partida ez dela oso handia, eta ez dakigula zer eskaera jaso ditzakegun.

Es cierto que nos hubiera gustado que el máximo de los ingresos se hubiera establecido un poco más alto, y haber llegado a las partes más necesitadas, teniendo en cuenta que en otros pueblos, por ejemplo, tienen algo más alto y, además, que el sueldo medio entre los 25 y 34 años en el País Vasco, en 2019, fue de 23.000 euros. Somos conscientes, también, que la partida del presupuesto no es muy elevada y que desconocemos las solicitudes que podamos a recibir.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta Gizarte Zerbitzuen Batzordean gure jarrera oinarri horien aurkakoa izan bazen ere, adostasuna lortzeko lan egin dugu, eta proposamenaren aldeko botoa emango dugu.

Teniendo en cuenta lo anterior, y aunque nuestra postura en la Comisión de Servicios Sociales fue contraria a estas bases, hemos trabajado para llegar a un consenso, y vamos a dar nuestro voto favorable a la propuesta.

Gaineratu nahi dugu, halaber, urrats garrantzitsua dela Debako etxebizitzari begira, baina ildo horretan jarraitu behar dugula datozen urteetan ere.

También queremos añadir que es un paso importante de cara a la vivienda en Deba, pero que debemos continuar en esta línea en los próximos años.

**Eneritz Gomez:** Guk, Aritzek esan duen bezala, gure taldearen adostasuna adierazi nahi dugu. Atzoko proposamen berria adostu dugu, eta pentsatzen dugu arrakala bat bazegoela eta ordenazio berri hori bidezkoa dela.

**Eneritz Gomez:** Como ha dicho Aritz, queremos expresar la conformidad de nuestro grupo. Hemos consensuado la nueva propuesta de ayer, y pensamos que existía una brecha y que esa nueva ordenación es más justa.

**Gilen Garcia:** Eskerrik asko. Hortaz, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

**Gilen Garcia:** Muchas gracias. Pasamos a la votación. ¿Votos a favor?

Udalbatzak, aho batez, etxebizitzaren alokairurako dirulaguntzen oinarriak onartzen

El Pleno, por unanimidad, aprueba bases de las subvenciones al alquiler de vivienda.

ditu.

**7. 2022 URTERAKO TAXIEN TARIFAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**Gilen Garcia:** Hauxe urteroko tramitea izaten da. Horrelaxe ailegatzen zaizkigu, eta inork ez badu iradokizunik edo aurkapenik, onartuko ditugu.

Udalbatzak, aho batez, 2022 urterako taxien tarifak onartzen ditu.

7. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS TARIFAS DE TAXIS PARA EL 2022.

**Gilen Garcia:** Este es un trámite anual. Así nos llegan y si nadie tiene sugerencias o se opone, las aceptaremos.

El Pleno, por unanimidad, aprueba las tarifas de taxis para el 2022.

**8. ETXEBIZITZA TASATUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**Gilen Garcia:** Azken aldian lanketa dezente egin ditugu gai honen harira. Ordenantzaren aldaketa gehien bat etorri da bederatzigarren azter gaian landuko dugun zozketarako oinarriekin lotuta zegoelako, eta ikusi dugu abantaila izan zitekeela ordenantzan modu orokor batean jasotzea artikulu horiek, eta ondoren, promozio bakoitzaren oinarrietan adostea zifra horiek, eta ordenantza generikoagoa izatea.

Hortaz, ondo iruditu bazaizue, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, etxebizitza tasatuen udal ordenantzaren aldaketa onartzen du.

8. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA MUNICIPAL DE LAS VIVIENDAS TASADAS.

**Gilen Garcia:** Últimamente hemos trabajado bastante en este tema. La modificación de la Ordenanza principalmente está relacionada con las bases del sorteo que vamos a tratar en el punto noveno, y hemos observado que la ventaja era que esos artículos se recogieran de forma más general en la ordenanza y que, posteriormente, en las bases de cada promoción, se acordaran esas cifras, siendo así, una ordenanza más genérica.

Por tanto, si os parece bien, pasaremos a la votación. ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba la modificación de la Ordenanza Municipal de Viviendas Tasadas.

**9. ETXEBIZITZA TASATUEN ZOZKETARAKO OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**Gilen Garcia:** Hau izan da, gehien bat, azken aldian egin ditugu lanketa, Elizburuko promozioari eta horren zozketari buruzko

9. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS BASES PARA EL SORTEO DE LAS VIVIENDAS TASADAS.

**Gilen Garcia:** Este ha sido, principalmente, el trabajo que hemos realizado últimamente para poner fin al procedimiento sobre la

gure prozedurari amaiera emateko, eta hauxe horren emaitza, eta pentsatzen dut adostasuna daukagula horretaz.

**Pedro Bengoetxea:** Esan behar dut pozten garela eztabaida egon delako bai udal ordenantzak aldatzeko bai Elizburuko etxe tasatuetarako zozketaren oinarrietarako.

Eztabaida horretan, uste dut gure ekarpenak ondo hartu direla, eta uste dut gure azken proposamenak apur bat hobetzen duela baliabide baxuenak dituzten pertsonentzako sarbidea. Nahiz eta gaia konpontzen ez duen, jendearen zati batentzako ba da konponbidea. Hortaz, gure botoa baiezkoa izango da, eta espero dugu eztabaidek ildo horretatik jarraitzea.

**Iñigo Cambronero:** EAJ-PNVren aldetik ere aldeko botoa emango dugu. Uste dut hiru indarren artean adostasun bat egon dela, eta horren fruitu direla ordenantza eta onartuko ditugun oinarri hauek.

Alde horretatik, zorionak guztioi, eta jarrai dezagun ildo horretatik.

**Gilen Garcia:** Oso ondo. Mila esker ekarpenengatik. Bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, Elizburuko etxebizitza tasatuen zozketarako oinarriak onartzen ditu.

**10. INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK HARTZEKO ETA GIZARTE LARRIALDIETARAKO EGOERAK ARTATZEKO ELGOIBARREN DAGOEN ETXEBIZITZA**

promoción y sorteo de Elizburu, y este es el resultado de ello, y creo que estamos de acuerdo en este punto.

**Pedro Bengoetxea:** Debo decir que nos alegramos de que haya existido un debate tanto para el cambio de las ordenanzas municipales como para las bases del sorteo para las casas tasadas de Elizburu.

En dicho debate nuestras aportaciones creo que han sido bien recibidas y pensando que nuestra propuesta final mejora un poco el acceso a las personas con recursos más bajos, si bien no soluciona el tema, pero si a una parte de la gente, nuestro voto va a ser que sí, y esperamos que sigan los debates en ese sentido.

**Iñigo Cambronero:** Desde EAJ-PNV también vamos a votar a favor. Creo que ha habido un consenso entre las tres fuerzas cuyo fruto son esta ordenanza y estas bases que vamos a aprobar.

En este sentido, enhorabuena a todos, y sigamos en esta línea.

**Gilen Garcia:** Muy bien. Muchas gracias por vuestras aportaciones. Pasamos a la votación. ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba las bases para el sorteo de las viviendas tasadas de Elizburu.

10. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE LA COMARCA DE DEBABARRENA PARA EL USO DE LA VIVIENDA

**ERABILTZEKO DEBABARRENA ESKUALDEKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

SITUADA EN ELGOIBAR PARA LA ACOGIDA DE MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA Y ATENCIÓN DE SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL.

**Aritz Larrañaga:** Hitzarmen hau beste urte batzuetan ere berretsi izan dugu, eta hitzarmena berriro berrestera ekartzearen arrazoia da etxebizitza horren erabileran aldaketa bat egon delako izan da.

Bere garaian etxebizitza hori indarkeria jasotzen zuten emakumeentzat baldin bazen ere, baina, ikusita ez direla horrenbeste kasu eman, baina bai eman direla egoera larrian dauden herritarren kasuak, erabaki da etxebizitza hori erabiltzea ez bakarrik indarkeria jasotzen zuten emakumeentzat, baizik eta momentu batean egoera larrian egon daitekeen herritar batek ere etxebizitza hori erabiltzeko aukera izateko.

Horrela hitzarmena egokitu egiten da etxe horrek bi funtzio horiek betetzeko. Hori da, azken finean, hitzartu duguna beste udalekin.

**Aritz Larrañaga:** Este convenio ha sido ratificado por otros años y el motivo de someterlo de nuevo a ratificación es que ha habido un cambio en el uso de la vivienda.

En su día esta vivienda estaba destinada para mujeres víctimas de violencia, pero a la vista de que no se han dado tantos casos, pero sí que se han dado casos de personas en situación de extrema vulnerabilidad, se ha optado por utilizarla no sólo para las mujeres víctimas de violencia, sino también que acceder a ella personas que en un momento dado pudieran encontrarse en una situación crítica.

Así, se ha adaptado el convenio para que esa vivienda cumpla ambas funciones. Esto es, en definitiva, lo que hemos pactado con los otros ayuntamientos.

**Gilen Garcia:** Bal al dago ekarpenik edo iradokizunik?

Udalbatzak, aho batez, hitzarmena onartzen du.

**Gilen Garcia:**¿Hay alguna aportación o sugerencia?

El Pleno, por unanimidad, aprueba el convenio.

**11. IZFE SA –INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA DEBAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN BERRI EMAN.**

11. INFORMAR SOBRE EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE IZFE SA-SOCIEDAD FORAL DE SERVICIOS Y EL AYUNTAMIENTO DE DEBA.

**Gilen Garcia:** Hau da erakunde publikoekin egiten den hitzarmen horietako bat. Hau da, datorren bezala onartzen dena.

**Gilen Garcia:** Este es uno de los convenios que se suelen realizar con las instituciones públicas. Es decir, que se acepta tal y como

viene.

Orduan, gehien bat, da berri ematea IZFEkin hitzarmena sinatu dugula, azkenean Aldundiaren sozietate bat da, eta ematen dituzten zerbitzuak jaso ahal izateko hitzarmena sinatu egin behar da, azken finean.

Entonces, se trata de informar de que hemos firmado un convenio con IZFE, que, a la postre, es una sociedad de la Diputación, y para poder recibir los servicios que prestan hay que firmar un convenio.

Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

El Pleno se da por enterado.

**12. "DESKONEKTATU ELEKTRIZITATETIK" ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

12. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL "DESCONÉCTATE DE LA ELECTRICIDAD".

**Itziar Irizar:** Adierazpen instituzional hau EH Bilduk prestatutakoa da, eta irakurriko dut.

**Itziar Irizar:** Esta declaración institucional es elaborada por EEH Bildu, y procedo a su lectura.

DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen eta Espainiako Gobernua hori baimentzen. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan. Gobernuek, politikariek, elektrikoek eta guztiek partekatzen dituzten interes ekonomikoek sortutako eta baimendutako iruzurra.

Haiek izan ziren, Espainiako Estatua gobernatu duten alderdiak, bai PSOE eta baita PP ere, enpresa publikoak pribatizatu, saldu eta desegin zituztenak, sistema desarautuz eta "merkatuaren" esku utziz. Administrazio Kontseiluek kontrolatzen eta manipulatzen duten merkatuaz ari gara, bi alderdiotako

DESCONECTAR DE LAS ELÉCTRICAS

El precio de la energía eléctrica en máximos históricos, facturas en aumento, las empresas eléctricas enriqueciéndose, la población empobreciéndose, y el Gobierno español autorizándolo. Este es el resumen del gran fraude que se está cometiendo contra la ciudadanía. Este fraude ha tenido graves consecuencias en las familias, en pequeñas y medianas empresas o en pequeños comercios. Fraude generado y autorizado por intereses económicos compartidos por gobiernos, políticos, eléctricos.

Han sido los partidos que han gobernado el Estado español, tanto el PSOE como el PP, los que privatizaron, vendieron y disolvieron a las empresas públicas, desregulando el sistema y dejándolo en manos del "mercado". Nos referimos al mercado controlado y manipulado por los Consejos de

presidente eta ministro ohiez osaturikoa. Helburu bakarrarekin: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea.

Horrela eraiki zuten haien neurrira eginiko merkatu elektrikoa, energia merkeena garestienaren prezioan ordaintzera iristeraino. Argindarrarekin espekulatu eta manipulatzen dute merkatua, ura edo haizea bezalako ondasun publikoen bitartez. Oligopolioko enpresa handiek, Endesa, Iberdrola edota Naturgyk, milioi askoko irabaziak metatzen dituzte urtero, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebasten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez. Zerutik eroritako etekinak dituen sare oso bat osatu dute urteotan, argindar konpainietako akziodunen poltsikoetan amaitzen dena. Negozio biribila.

Egoera horren aurrean, eskandalu horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez ditu hartu Espainiako Gobernuak, iritzi publikoaren eta indar politiko subiranisten eta aurrerakoien presioak derrigortu duen arte. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu duenean, enpresek xantaia egin diote eta mehatxura jo dute; ez bakarrik Espainiako Gobernuari, baita argindarraren faktura merketuko zaiela espero duten milaka herritarrei ere. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoien arteko pultsu baten aurrean gaude, finean.

Bada, katalanek, euskal herritarrek eta galiziarrek, fronte komun bat osatu dugu gaur

Administración, compuesto por antiguos presidentes y ministros de los dos partidos. Con un único objetivo: enriquecerse con un bien esencial como es la energía.

Así se construyó un mercado eléctrico a su medida, hasta llegar a pagar la energía más barata al precio de la más cara. Especulan con la electricidad y manipulan el mercado a través de bienes públicos como el agua o el viento. Las grandes empresas del oligopolio, Endesa, Iberdrola o Naturgy, acumulan anualmente beneficios de muchos millones de euros, mientras sustraen dinero a los consumidores y hurtan terrenos a los productores, con consecuencias sociales y climáticas muy graves. Durante estos años han conformado una red completa con beneficios caídos del cielo, que termina en los bolsillos de los accionistas de las compañías eléctricas. Un negocio rotundo.

Ante esta situación, el Gobierno español sólo ha tomado medidas coyunturales y parches para hacer frente a este escándalo, hasta que ha sido forzado por la presión de la opinión pública y de las fuerzas políticas soberanistas y progresistas. Y cuando ha tomado la única medida que afectará a los beneficios de las grandes empresas, las empresas le han chantajeado y han recurrido a la amenaza, no sólo al Gobierno español, sino también a los miles de ciudadanos que esperan que la factura de la luz se abarate. Estamos ante un pulso entre las élites y las mayorías sociales y populares.

Pues bien, catalanes, vascos y gallegos hemos formado hoy un frente común contra las

oligopolio energetikoaren mehatxuen aurka, Espainiako Gobernuak iruzur elektrikoari egiturazko neurriekin aurre egiteko erakutsi duen borondate eta ekintza falta salatzeaz gain.

amenazas del oligopolio energético, además de denunciar la falta de voluntad y acción del Gobierno español para combatir el fraude eléctrico con medidas estructurales.

Izan ere, gure herrialdeek, Herrialde Katalanek, Galiziak eta Euskal Herriak, ez dute iruzur elektrikoari eta horren erantzuleei aurre egiteko beharrezkoa dugun subiranotasuna. Gure parlamentuak eta gobernuak Espainiako Estatuari lotuta daude, eta horrek guzti hori gertatzea ahalbidetzen du. Gaur- gaurkoz, merkatuan esku hartu ahal izateko, oligopolio elektrikoari aurre egiteko eta gobernuak ausardia faltagatik hartu nahi ez dituen neurriak martxan jartzeko tresna propioak ukatzen zaizkigu.

Porque nuestros países, los Países Catalanes, Galicia y País Vasco, no tienen la soberanía necesaria para hacer frente al fraude eléctrico y a sus responsables. Nuestros parlamentos y gobiernos están vinculados al Estado español, que permite que esto ocurra. A día de hoy, se nos niegan los instrumentos propios para poder intervenir en el mercado, combatir el oligopolio eléctrico y poner en marcha medidas que el gobierno no quiere adoptar por falta de valentía.

Espainiako Estatuarekiko dugun menpekotasun energetiko eta politikoa oztopo argi bat da gure herritarrak enpresek egiten dituzten gehiegikerietatik babesteko. Prezioei muga jartzea, arlo publikotik esku hartzea eta kontrolatzea eragozten digu horrek. Tarifa propioak, arau propioak, merkatu propioak eta, beraz, irtenbide propioak sortzea eragozten digu. Azken finean, publikoa zena berreskuratzea galarazten digu.

Nuestra dependencia energética y política con respecto al Estado español es un claro obstáculo para proteger a nuestra ciudadanía de los abusos que cometen las empresas. Esto nos impide poner límites a los precios, intervenir y controlar desde el sector público. Nos impide crear tarifas propias, normas propias, mercados propios y, por tanto, soluciones propias. En definitiva, nos impide recuperar lo que era público.

Gure herriek subiranotasun energetikoa ez izatea oso garesti ateratzen zaigu galiziarroi, katalanoi eta euskal herritarroi. Bada garaia gure nazioen eraikuntzan ere burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeko eta argindarra

La falta de soberanía energética de nuestros pueblos nos resulta muy caro a los gallegos, catalanes y vascos. Es hora de avanzar hacia la soberanía energética en la construcción de nuestras naciones, de contar con sistemas propios que rompan con el oligopolio establecido, para construir sistemas justos desde lo público y respetar la electricidad

errespetatzeko, oinarrizko ondasun eta eskubide gisa.

como bien y derecho fundamental.

Hori dela eta, Debako Udalak honako hau adierazten du:

Por ello, el Ayuntamiento de Deba manifiesta:

1. Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen duela.
2. Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar duela, espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeko eta argindarra oinarrizko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko.
3. Eusko Jaurlaritza interpelatzen duela, lankidetza publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzala presazko izaerarekin.
4. Debako Udalak urriaren 8an, 22:00etatik 22:30era deitutako itzalaldi masiboarekin eta kazola-jotzeko deialdiarekin bat egiten duela.

1. Que denuncia el grave fraude que están cometiendo con el precio de la luz las empresas eléctricas del estado español.
2. Que Euskal Herria necesita la soberanía energética, sistemas propios que rompan el oligopolio establecido en el estado español, sistemas justos que construyan desde lo público y respeten la electricidad como un bien básico y un derecho.
3. Que interpela al Gobierno Vasco para que adopte, con carácter de urgencia, medidas concretas que garanticen la colaboración público-comunitaria, descentralizada y el control público.
4. Que el Ayuntamiento de Deba se adhiere se adhiere a la convocatoria de apagón masivo y de cacerolada convocada para el día 8 de octubre, de 22:00 a 22:30 horas.

**Pedro Bengoetxea:** Guk talde bezala egiten duguna beti: adierazpen hauek aurkezten badira Debatik, bakoitzak hartuko du bere postura.

**Pedro Bengoetxea:** Guk talde bezala egiten duguna beti: adierazpen hauek aurkezten badira Debatik, bakoitzak hartuko du bere postura.

**Iñigo Cambronero:** Gure taldeak ez du mozio hau babestuko.

**Iñigo Cambronero:** Nuestro grupo no va a apoyar esta moción.

Uste baitugu, mozioaren testuak partekatzen ez dugun tonua duela. Gure ustez, ez du zorroztasunik, gure arazoaren ikuspuntu sinplista eskaintzen du, eta ez du konpromisorik gure gizartearen ongizatearekin eta erronka ekonomiko eta

Consideramos que el texto de la moción tiene un tono que no compartimos. A nuestro juicio carece de rigor, ofrece un punto de vista simplista de nuestra problemática, y carece de un sentido de compromiso con el bienestar de nuestra sociedad y con el desafío económico y

klimatikoarekin. Ez dugu aipatzen berriztagarriak instalatzeko efizientzia, ez autokontsumoa, ez komunitate energetikoak, ez baliabide propioak aurkitzea. Salaketa bat eta kazola-jotze bat baino ez dugu egingo, eta guk ez dugu partekatuko.

climático. No hablamos de donde está la eficiencia de instalar renovables ni autoconsumo, o comunidades energéticas ni encontrar recursos propios. Nos limitamos a hacer una denuncia y una cacerolada, y nosotros no vamos a compartir.

**Gilen Garcia:** Eskerrik asko. Aldeko bozkak?.

Abstentzioak?

Aurkako bozkak?

Hortaz, aldeko sei bozkarekin, lau abstentziorekin, eta aurkako hiru bozkarekin, onartzen da adierazpena.

**Gilen Garcia:** Muchas gracias. ¿Votos a favor?

¿Abstenciones?

¿Votos en contra?

Por lo tanto, con seis votos a favor, cuatro abstenciones y tres votos en contra, se aprueba la declaración.

**13. GAI ZERRENDATIK KANPOKO AZTERGAIA: EAJ-PNV UDAL TALDEAK URGENTZIAZ AURKEZTUTAKO MOZIOA, KULTURA BATZORDEKO LEHENDAKARIA GAITZESPENARI BUZUZKOA.**

**Gilen Garcia:** Osoko bilkuraren hasieran adostu dugunarekin bat, 13. aztergaian aztertuko dugu EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa. Zurea da hitza, Iñigo.

**Iñigo Cambronero:** Eskerrik asko. Aurkeztu dugun mozio proposamena irakurriko dut.

Kultura Batzordeko lehendakaria gaitzestea, aipatutako batzordean ordezkaritza-gehiengoak erabakitakoa ez betetzeagatik , eta aldebakarreko jarduera baimentzeagatik, Batzordearen jarrera kontuan hartu gabe.

ZIOEN AZALPENA

Joan den irailean egin zen Kultura Batzordearen bileran, lehendakariak Aldats pilotalekuan herri-bazkaria egitearen inguruko

13. ASUNTO FUERA DEL ORDEN DEL DÍA: MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV CON CARÁCTER DE URGENCIA, SOBRE LA REPROBACIÓN DEL PRESIDENTE DE LA COMISIÓN DE CULTURA.

**Gilen Garcia:** De acuerdo con lo acordado al inicio del Pleno, en el punto 13 analizaremos la moción presentada por EAJ-PNV. Tienes la palabra, Iñigo.

**Iñigo Cambronero:** Eskerrik asko. Voy a dar lectura de la propuesta de moción que hemos presentado.

Reprobación al Presidente de la comisión de Cultura por no acatar lo decidido por mayoría representativa en dicha comisión y autorizar una actividad de manera unilateral y sin tener en cuenta el posicionamiento de la Comisión.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En la reunión de Comisión de Cultura celebrada el pasado mes de Septiembre y tras solicitar el Presidente de la misma el

jarrera eskatu ondoren, EAJ-PNV taldearen eta Debarren Ahotsa taldearen ordezkariek horren aurka bozkatu zuten, eta, beraz, bazkariaren aurkako erabakia gailendu zen eta hala helarazi zitzaien interesatuei.

posicionamiento respecto a la celebración de la comida Popular en el frontón Aldats, las representantes del grupo EAJ-PNV y Debarren Ahotsa, votaron en contra de la celebración de la misma, quedando por tanto la decisión contraria a la celebración de la comida y así se trasladó a los interesados.

Irailaren 16an, osteguna, gure harridurarako, herri-bazkarirako deialdia ikusi genuen. Deialdia sare sozialetan argitaratu zen, eta Udalaren oniritzia jaso zuen, bai eta bazkaria egiteko behar zen ekipamenduaren eta kokalekuaren lagapena ere.

El jueves 16 de septiembre, para nuestra sorpresa, nos encontramos con la convocatoria de la comida popular, publicada en redes sociales que contaba con el visto bueno del Ayuntamiento y la cesión del equipamiento y emplazamiento necesarios, para su celebración.

Gure ustez, jarduera horrek ez ditu errespetatzen udal-batzordeen funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak, eta arduragabekeria da eta erakundearen printzipio demokratikoak hausten dira.

Consideramos que esta actuación no respeta los principios básicos del funcionamiento de las comisiones municipales y constituye una acción irresponsable y que se salta los principios democráticos de la institución.

Adierazi nahi dugu oposizioari bizkarra emanda jardun dela, irizpide-aldaketaren berri eman gabe, udal-ordezkaritzaren gehiengoak Batzordean hartutako erabakia gutxietsiz, eta horrek berrespen-mozio hau aurkeztera behartzen gaituela. Horregatik proposatzen dugu:

1. Kultura Batzordeko lehendakaria osoko bilkuraren gaitzespena, Kultura Batzordean gehiengoz erabakitakoaren aurka jokatzeagatik.
2. Debako Udaleko Kultura Batzordeko lehendakari gisa dituen betebeharrak zintzo betetzeko edo kargua uzteko eskakizuna.
3. Alkateari eskatzen diogu, zinegotziaren

Queremos manifestar que se ha actuado a espaldas de la oposición, sin informar del cambio de criterio, ninguneando la decisión de la mayoría de la representación municipal en la Comisión, lo que nos obliga a presentar esta moción de Reprobación. Por ello proponemos:

1. Reprobación por el pleno del Presidente de la Comisión de Cultura por actuar en contra de lo decidido democráticamente por mayoría en la Comisión de Cultura.
2. Exigencia de que cumpla fielmente sus obligaciones como presidente de la Comisión de Cultura del Ayuntamiento de Deba o dimita de su cargo.

3.Solicitamos al Alcalde, que siendo

jardunaren jakitun izanik eta bere talde politikokoa denez, ez dezala Gobernu Taldean ekintza antidemokratikorik onartu, eta arazo hori konpontzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har ditzala.

conocedor de la actuación de su concejal y dado que pertenece a su grupo político, no permita actuaciones antidemocráticas en su equipo de Gobierno, y tome las medidas que considere necesarias, para subsanar esta anomalía.

**Gilen Garcia:** Ba al dago beste ekarpenik?

**Gilen Garcia:** ¿Hay alguna otra aportación?

**Ane Egidazu:** Gai honen inguruan, guk bere momentuan azaldu genuen gure desadostasuna, eta baita ere gaitzetsi genuen EH Bilduk hartutako alde bakarreko erabakiarekin.

**Ane Egidazu:** En relación a este tema, nosotros expusimos en su momento nuestro desacuerdo y también rechazamos la decisión unilateral de EE Bildu.

Onartezina deritzogu, egun instituzio demokratiko batean udal gobernuak gehiengoaren iritzia ez onartzea eta ez errespetatzea. Alderdi bien desadostasuna jakin arren –eta egon ginen bilduta Aritz, Miren eta hirurok– zuen alderditik ez dugu ikusi inolako aldaketarik, ez zuzenketarik, eta horrek eramaten gaitu bozka honetan aldeko botoa ematera.

Nos parece inaceptable que, en la actualidad, en una institución democrática, el gobierno municipal no acepte y respete la opinión mayoritaria. A pesar de conocer la discrepancia entre ambas partes –y estuvimos reunidos Aritz, Miren y los tres– no hemos visto ningún cambio ni corrección en vuestro partido, lo que nos lleva a votar a favor en esta votación.

**Gilen Garcia:** Oso ondo. Eskerrik asko.

**Gilen Garcia:** Muy bien. Muchas gracias.

**Gilen Garcia:** Guk ez gaude mozio honen alde.

**Gilen Garcia:** Nosotros y nosotras no estamos a favor de esta moción.

Kultura batzordea ospatu zen. Debarren Ahotsa ezer ez egitearen aldekoa zen. Eusko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak Euskal Jaia ospatzearen alde, baina, ez bazkariaren alde agertu zen. Euskal Jaia ospatzearen aldeko gehiengoa ikusita kultur eragileekin jaia nola antolatu adostu zen, beste guztiekin egin den bezala.

Se reunió la Comisión de Cultura. Debarren Ahotsa abogaba por no hacer nada. La representación del Partido Nacionalista Vasco abogó por la celebración de Euskal Jaia pero no por la comida. Ante la mayoría de celebrar Euskal Jaia, se acordó con los agentes culturales cómo organizar la fiesta, como se ha hecho con todas las demás.

Zuhatza Elkarteak bazkaria antolatzeko proposamena, eta berau burutzeko protokoloa ezagutu ostean, ekimena aurrera

Una vez conocida la propuesta de organización de la comida por parte de Zuhatza Elkartea y el protocolo para llevarla a

ez eramateko arrazoi objektiborik ez zegoela ondorioztatu genuen Udal Gobernuak, … Udal Gobernuak.

cabo, el gobierno municipal, …, el gobierno municipal, concluimos que no existían razones objetivas para no llevar a cabo la iniciativa.

Maiatzetik gaurdaino antolatu diren ekimenetan bezalaxe, normaltasuna izan nagusi Euskal Jaietarako antolatutako egitarau osoan. Zentzu horretan, eskerrak ematea ekintza burutzea posible egin zuten guztiei: udal langile, zinegotzi, eragile eta boluntarioei.

Al igual que en las iniciativas que se han organizado desde mayo hasta la actualidad, la normalidad ha sido la nota predominante en todo el programa organizado para Euskal Jaia. En este sentido, agradecer a todos y todas las empleadas municipales, concejales, agentes y voluntarias haber hicieron posible la ejecución del programa.

Eta mozioari dagokionez, ez dugu horren zentzua ondo ulertzen, ez eta konpartitzen. Beste alderdi bateko zinegotzi bat kritikatzea zilegi da, baina, hortik igarotzea da muga. Sortzen ari diren gobernantza ereduak eta lan egite moduak kolpatzen duzue egiten duzuen irakurketa era darabil duzuen diskurtsoarekin, eta politika egiteko modu zaharrak direla uste dugu. Udal gobernuak garbi dauka, aurrerantzean ere, herritar, eragile eta alderdiekin elkarrekin lanean jarraituko duela. Eskerrik asko.

Y en cuanto a la moción, no entendemos ni compartimos su sentido. Se puede criticar a un concejal de otro partido, pero la frontera es pasar de ahí. Habéis golpeado los modelos de gobernanza y las formas de trabajar emergentes con la lectura que realizáis y con el discurso que utilizáis, y creemos que son viejas formas de hacer política. El gobierno municipal tiene claro que seguirá trabajando conjuntamente con la ciudadanía, agentes y partidos. Muchas gracias.

**Gilen Garcia:** Mozioaren aldeko bozkak?

**Gilen Garcia:** ¿Votos a favor de la moción?

Aurkako bozkak?

¿Votos en contra?

Aldeko zazpi bozkarekin eta kontrako sei bozkarekin, onartzen da mozioa.

Con siete votos a favor y seis votos en contra, se aprueba a moción

**14. ESKARI ETA GALDERAK.**

14. RUEGOS Y PREGUNTAS

**Iñigo Cambronero:** Hiru galdera ditut.

**Iñigo Cambronero:** Tengo tres preguntas.

Bata behin eta berriz errepikatu da, eta Osioren arau subsidiarioen aldaketaren egoeraren buruzkoa da.

Una ya es reiterada, y es sobre el estado de la modificación de las normas subsidiarias de Osio.

Proiektua aldatuta konpondu ezin ziren zenbait aldaketa planteatu ziren, baina arkitektoarekin hitz eginda, esan zigun proiektu horrek gehiago sakontzea eskatzen zuela eta, agian, atzera egin eta abiapuntura itzul gintezkeela. Jakin nahi nuen ea horri buruz lan egin den; izan ere, Saioarekin izan ditudan kontaktuak duela hiru astekoak dira, eta ez dakigu askoz gehiago.

Se plantearon una serie de modificaciones que no se podían resolver con una modificación del proyecto, pero hablando con la arquitecta, nos comentó que este proyecto requería una profundización mayor y que, a lo mejor, podríamos echar para atrás y volver al punto de partida. Quería saber si se ha trabajado sobre esto porque los contactos que he tenido con Saioa son de hace tres semanas, y no sabemos mucho más.

Bigarren galdera oso zehatza da, Alamedako karpari buruzkoa, ez baitakigu noiz arte egongo den instalatuta. Aldi baterako zen gai bat denboran ainguratuta dago, berdegune batean dago eta zer aurreikuspen zeuden jakin nahi genuen, inpaktu handia baitu bizilagunengan.

La segunda pregunta es muy concreta, es sobre el tema de la carpa de la Alameda ya que no sabemos hasta cuando va a permanecer instalada. Un tema que era temporal está anclado en el tiempo, está en una zona verde y queríamos saber qué previsiones había ya que tiene un impacto importante en los vecinos.

Eta hirugarrena, eta azkena, udako aparkalekuen ordenantzaren funtzionamenduari buruzkoa da. Hemen, sistemak nola funtzionatu zuen baloratzeko konpromisoa hartu genuen, hainbat batzordetan informazioa eskatu dugu okupazioari, mugimenduei eta abarri buruz, eta jakin nahi genuen ea aurreikuspenik duzuen, nola parte hartuko dugun, balorazioan parte hartu behar badugun, ezer baino gehiago, sistema horri buelta bat emateko eta optimizatzeko.

Y la tercera, y última, es sobre el funcionamiento de la ordenanza de aparcamientos en verano. Aquí adquirimos un compromiso de hacer una valoración de cómo había funcionado el sistema, hemos solicitado información en varias comisiones sobre cual ha sido la ocupación, los movimientos, etc., y queríamos saber si tenéis alguna previsión, cómo vamos a participar, si es que tenemos que participar en la valoración, más que nada, para dar una vuelta de tuerca y optimizar ese sistema.

**Gilen Garcia:** Lehendabiziko gaiari buruz ez daukat informazio berririk emateik. Elkarrekin egin ginen hirigintzako batzordean, Saioarekin hitz egin zenuen. Bidea hau elkarrekin egiten ari gara, gogoeta elkarrekin egiten ari gara eta informazio guztia

**Gilen Garcia:** Sobre el primer tema no puedo dar nueva información. Estuvimos juntos en la Comisión de Urbanismo, hablaste con Saioa. Estamos haciendo este camino juntos, reflexionamos juntos y compartimos toda la información.

konpartitzen dugu.

**Gilen Garcia:** Bigarren galderari buruz, aritzek hobeto erantzungo dizu.

**Aritz Larrañaga:** Uda hasieran asmoa zen karpa iraila bukaera arte edukitzea, baina, ikusita zer beharrak zeunden eta erabiltzaileek eta herritarrek ere beste gunerik ez dutela kultur ekintzak-eta egiteko, iraileko Kultura batzordean hitz egin zen karpa bi hilabete gehiago luzatzeaz, eta denon adostasunarekin, horrela erabaki zen. Oraingoz kultura ekintzak programatzen ari gara hemendik eta azaroaren bukaera arte, batzuk karpan, beste batzuk frontoian, dauzkagun baliabide eta azpiegituren arabera. Egia da luzatu egin behar dela herrian bizitza sortzeko eta eragileek bere ekintzak aurrera eraman ahal izateko, eta adostutakoari jarraituz, azaroa bukaera arte egongo da karpa.

**Gilen Garcia:** Galdera bat, Aritz. Batzordean aho batez onartu zen hori?

**Aritz Larrañaga:** Bai.

**Gilen Garcia:** Hirugarrena, aparkalekuei dagokionez, uste dut komentatu duzuen bakoitzean berdin erantzun dudala. Denboraldia amaitu bezain laster ahalbide bat ireki beharko dugula, eta horretan berresten naiz. Hortaz, balantzea izan bezain laster, konpartituko dugu gogoeta egin ahal izateko.

**Iñigo Cambronero:** Eskerrik asko.

**Gilen Garcia:** Sobre la segunda pregunta, Aritz te responderá mejor.

**Aritz Larrañaga:** A principios de verano se pretendía mantener la carpa hasta finales de septiembre, pero ante las necesidades existentes y la falta de espacios para la acción cultural por parte de los y las usuarias y la ciudadanía, se habló en la Comisión de Cultura de septiembre sobre prorrogar la instalación de la carpa durante dos meses más, y por consenso de todos así se decidió. Por el momento estamos programando acciones culturales desde aquí hasta finales de noviembre, unas en la carpa, otras en el frontón, en función de los recursos e infraestructuras que tengamos. Es cierto que hay que prorrogarla para crear vida en el pueblo y para que los agentes puedan llevar a cabo sus acciones, y siguiendo lo acordado, la carpa estará hasta finales de noviembre.

**Gilen Garcia:** Una pregunta, Aritz. ¿En la Comisión eso se aprobó por unanimidad?

**Aritz Larrañaga:** Si

**Gilen Garcia:** La tercera, la relativa a los aparcamientos, creo que he respondido igual cada vez que lo habéis comentado. Me ratifico en que nada más finalizar la temporada tendremos que abrir un proceso. Por lo tanto, en cuanto tengamos el balance, lo compartiremos para poder reflexionar.

**Iñigo Cambronero:** Muchas gracias.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 19:45etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 19:45 horas.

Jose Luis Salaberri Iñarra

Idazkaria

DEBAKO UDALA IDAZKARITZA OROKORRA SECRETARIA GENERAL AYTO. DE DEBA

Gilen Garcia Boyra

Alkatea

DEBAKO ALKATETZA ALCALDÍA DE DEBA